

Ongizate Emozionala



FP Euskadi LH

BIDEOAREN LANKETA

HELBURU OROKORRA:

Eskola-eremuan suizidioa prebenitzea.

HELBURU ZEHATZAK::

Ikaskideen artean modu aktiboan entzuteak duen garrantziaz sentsibilizatzea.

Emozionalki laguntza berezia behar duen ikaskideren bat izanez gero, nola jokatu jakitea.

JARDUERA:

- 0'-10'

Jarduerarekin hasi aurretik, ikasleei suizidioari buruz hitz egingo dugula azalduko diegu. Gai horrek errespetu osoa eskatzen duela, eta haien inplikazioa eskatzen diegula adieraziko diegu. Saioa guztiok seguru senti gaitetzen aurreiritzien eta/edo iseken beldurrik gabe adieraztearen beharra azpimarratuko dugu. Giro atsegin hori lortzeko beharrezkoa den denbora eskeintzea garrantzitsua da.

hau lortzeko beharrezko arauak beraiek zehaztea eskatuko diegu (ez barre egitea, txandak errespetatzea, balio-iritzirik ez egitea...).

10'.- 15'

Bideoa ikusiko dugu.

15-35'

Ikasle bakoitzari folio bat banatu ondoren, irakasleak galdera batzuk ozen irakurriko ditu, eta ikasleek galdera horiei erantzungo diete hausnarketa pertsonala eginez. (Ikasleei hausnarketa pertsonal eta indibiduala egiten laguntzen dien giro atsegina sortzeko asmoz, musika lasaia jar dezakegu.)

Erantzun beharreko galderak:

LAGUN BAT GAIZKI BADAGO.

- Zer egiten duzu lagun bat gaizki dagoela dakizunean?
- Pertsona horrengana hurbiltzen zara edo hori saihesten saiatzen zara?
- Noizbehinka galdetzen al diozu?
- Eroso zaude arazoak entzuten?
- Badakizu zer esan?
- Zure ustez, epaitzen duzu, aholkuak ematen dizkiozu edo, aitzitik, balio-judiziorik egin gabe eta aholkurik eman gabe entzuten duzu?

GAIZKI ZAUDENA ZEU BAZARA.

- Laguntza eskatzen duzu?
- Irekitzen al zara? Zure sentimenduak beldurrik gabe adieraz ditzake
- Nola gustatzen zaizu beste pertsonak erantzutea?
- Epaituko zaituzten beldur zara?
- Gustatzen zaizu aholkuak entzueta, edo nahiago duzue bakarrik entzutea?
- Zure beharrak argi eta garbi adierazten dituzu?

35' - 55'

Ikasleak talde txikietan (4-5 pertsona) elkartzera gonbidatuko ditugu, banaka egin dituzten hausnarketak partekatzeko (ez da derrigorrezkoa).

Garrantzitsua da hitz egiten eroso senti daitezkeen afinak izan daitezken pertsonen arteko taldeak egitea.

55' - 60'

Saioa amaitzeko, irakasleak bideoan ematen diren mezuak gogoraraziko ditu.

Materiala: folioak
Boligrafoak